

# **HERRI BATASUNA ETA ESPAINIAR TRANTSIZIOA (1977-1983): METAKONTAKIZUN NAZIONALAK ETA EGUNEROKO ESPAZIOAK**

**Tesiaren egilea:** Gorka Etxebarria Dueñas

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

**Saila:** Historia Garaikidea

**Tesi-zuzendaria:** José María Beascochea Gangoiti, Alejandro Quiroga Fernández de Soto

**Tesiaren laburpena:**

Doktorego-tesi honen lehen helburua euskal nazionalismoaren azterketa historikoa Europa mailako nazioarteko egungo ikerketetara egokitzea izan da. Azken bi hamarkadetan, nazionalismoaren inguruko ikerketa historikoak identitate nazionalen oinarrian dauden kontakizunak eta estereotipoak aztertu ditu, horien arteko harremanak, antzekotasunak eta ñabardura ezberdinak azpimarratuz. Gure ikerketan ondorioztatu dugu euskal kasuan ere estereotipo eta kontakizun horiek aztertu eta landu daitezkeela eta Europako gainontzeko nazionalismoekin erkagarria dela, eta, horrenbestez, ez dagoela zertan analisirako marko espezifikorik sortu, historiari dagokionez.

Bigarren helburua izan da Espainian Frankismoari eta Trantsizioari buruz egin diren lanak erabiltzea, garaiko Euskal Herria aztertzeko. Izan ere, azken urteotako lan horiek zenbait alor interesgarri azpimarratu dituzte: frankismoko diktadurapean jendeak izan zituen jarrera ezberdinak (sostengutik eta onarpenetik hasita, beldurreraino eta oposizio aktiboraino, apatiatik eta disimulutik pasata), langile-mugimenduak sentimendu antifrankistaren hedapenean izan zuen lehen mailako papera, instituzioetatik haratago gizartea modu autonomo batean antolatatu izanaren garrantzia, ezker iraultzaileko talde eta alderdiek izandako parte-hartze aktiboa eta funtsezkoa, disidentzia antifrankistaren heterogeneotasuna, Franco hil ostean apurketa politikorik gertatu ez izanak eduki zituen ondorioak... Alor horiek guztiak kontuan hartuta, Euskal Herrian 1970 eta 1977 artean bizi izan zen giro politiko berezia ez zela fenomeno isolatua ondorioztatu dugu eta, hain zuzen ere, horixe dela Herri Batasunak bere sorreratik izan zuen arrakasta erlatiboa ulertzeko gakoetako bat.

Hirugarren helburua kultura politiko baten sorreran eta garapenean egunerokotasunak duen garrantzia azpimarratzea izan da. Horrela, demografiak eta hiri-

historiak mugimendu politikoekin dituzten loturak nabarmendu dira eta adierazi da bereziki garrantzitsua izan zela Herri Batasunaren eta auzo-mugimenduaren artean egon zen harremana eta sinbolo eta diskurtso konpartituen erabilera, bere arrakasta ulertzeko orduan.

Helburu horiek kontuan hartuta, 1977 eta 1983 arteko Herri Batasunaren historia eraiki da. Eraikuntza horretan bai artxiboko iturriak, bai iturri bibliografikoak, bai ahozko iturriak erabili dira. Trantsizio-garaiko Herri Batasunaren historian azpimarratu da kontakizunen eta estereotipo nazionalen, testuinguruaren eta egunerokotasunaren garrantzia, proiektu politiko zehatz batean aukerak, mugak eta dinamika aldakorrak adierazteko orduan. Zentzu horretan, arreta berezia eskaini diegu bi data horien artean indar politiko independentista haren baitan gertatu ziren aldaketei eta egoera ezberdinen aurrean egin zuen egokitzapenari, bai eta Herri Batasunaren inguruan beste talde politikoek sortu zituzten irudi estereotipatuei ere. Aldi berean, nazioarteko testuinguru aldakorra kontuan hartzea ezinbestekoa dela defendatu da, bai Herri Batasuna eta bai euskal nazionalismoaren historia bere luzean ulertzeko orduan.